

# KA TOPAKETA #5 ESKEMA/LABURPENA (2015.03.07)

## 1. EGOERA OROKORRA / PROPOSAMENAK / BERRIKUNTZAK

- ✚ **Irabazi Donostia** Alderdi Politikoaren proposamena jaso da Topaketetan parte-hartzeko. KA ez da politikoki definituko baina alderdi bakoitzak proposatutako proposamen kulturekin kontatuko du.
- ✚ Ostalaritzan gauak beherakada bat jasan du, proposamenak egin ditzakegu.
- ✚ Jada erabiltzen ez diren Gipuzkoako gunek batzuk berriz ere aktibatzen dira.
- ✚ Komunikazio lan talde bat sortzeko beharra planteatzen da.
- ✚ Egiteko gelditzen dira KA-ko kideen ekimeneren zerrenda, inskripzio fitxa batzuk eta ordu aldaketaren proposamenaren gaiari heltzea.
- ✚ Teaserra prozesuan dago, proposamen zehatz baten zain.
- ✚ Bitartekaritza: Eusko Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin lehenengo kontaktuak hasi ditugu, bitartekariaren figura definitzeko. Ekimeneren baimenak 48 ordu lehenago tramitatzeko larrialdi "leiho" bat existitzen da ere.

### 1.1. FINANTZAKETA / IKUSARAZPENERAKO KONTAKTU POSIBLEAK

- ✚ Jada aurkeztu da Diputazioaren Parte-hartze Eremua eta asko gustatu da.
- ✚ Gipuzkoako Ostalaritza. Gauak beherakada jasan duela diote. Proposamenak egin.
- ✚ Sponsorsak. KA monopolizatzen ez duen bitartean eta bere esentzia, helburuak, etab. aldatzen ez dituen bitartean. Eztabaidatu egin behar da.
- ✚ Donostikluba zirkuitua. Bai? Ez? Eztabaidatu egin behar da.

## 2. KA ZUZENEAN #1 BALORAZIOA

Hobetzeko puntu batzuk dauden arren, ekimena arrakasta bat izan zen. Hurrengorako, KAren gain “gidoi” bat jarri, hobekuntza eszenikoak, eta ikusleen jarrera. Ekimena instituzioen web orrien bidez, egunkarien bidez, Facebook eta bestelakoen bidez zabaldu zen.

### 2.1. ZUZENEAN #2

Hurrengoa egiteko, DoKa eskaini egiten da Apirilaren 18rako. Berriz ere, antolakuntza talde bat sortuko litzateke (pertsonek errepika ez daitezela) ekimena garatzeko.

## 3. LOGOAREN AUKERAKETA

Logoa, kideek egingo dituzten ekintzetan erabili daiteke eta ondo legoke Whatsapp, Facebook, eta abarretan erabiltzea, ikusten joan dadin.

## 4. WEB BALORAZIOA

Proposatzen da:

- ✚ Kontzertuen kartelak barneratuko dituen “pestaña” bat gehitu.
- ✚ Ekintzen zerrenda bat jarri
- ✚ Kide bakoitzari buruz informazio gehiago jarri (linkak/bideoak/etab.)
- ✚ Youtubera eramango duen esteka bat, Facebook eta Twitter bezala.

## 5. JENDEARENGANA IRISTEKO MODUAK

- ✚ Zuzenean elkarte eta agente lokalekin harremanetan jarri eta KA zer den azaldu, proiektuan integratu daitezela.
- ✚ Kontzertuak antolatzen diren tabernetan, informaziozko eskuorri batzuk utzi edo kontaktu bat.
- ✚ Disziplinak zabaltzea proposatzen da.
- ✚ Hodeiek ber web orrian parte-hartzera gonbidatzen gaitu. elkARTuz: <http://www.elkartuz.com/elgg-1.9.3/>
- ✚ PECHA KUCHA NIGHT: Apirilaren 23an CC Okendon (Gros). Formatu arin bat da, 20 minutuko erakusketekin, 20 irudi, KA zer den aurkezteko aukera ona eta publiko gehiagorengana iristeko.

## 6. LAN TALDEAK:

- PRENTSA: Lide Hernando, Iñaki Arizmendi, Ander Morea, Igor Alvarez, Lisandro.
- KA ZUZENEAN#2: Eneko Doka, Antxon, Ivan Oteiza, Karmen Salazar, Kixki.
- OLATU TALKA: Igor Alvarez, Antxón, Jokin, Gorka Calero, Lisandro, Roberto

## 7. KA-ren EGITURA

KA, HONELA OSATUTA DAGO: Pertsonak/artistak/agenteak. Kideek burutzen diren ekimen artistikoez ere osatuta dago.

Xpressionk, proiektuaren bultzatzaile bezala, administrazioaz, sare sozialez, instituzioekin harremanetan jartzeaz... arduratzen da.

EGITURA (HORIZONTALA): Guztia Topaketetan erabakitzen da, Xpressionk-k beste edonoren botere berdina du erabakietan, hortaz, denen artean harturako erabakien arabera jokatu du.

## 8. DONOSTIA 2016

2016-ko hitzaldietara joango den norbait behar dugu, jakiteko zehazki zertaz doan gauza eta zein ideia dituzten.

**Demagun** (Asociación por la Paz) Jaialdi Antimilitarista batean parte-hartzeko eskaintza egin du. Hau Donostia 2016-ren programaren barne dago.

Baita ere, Donostia 2016-ren barnean Suhiltzaileen espazio bat eskaintzen da, udaran gehienez artista bakoitzeko 4 orduko ekimenak egiteko.

### 8.1. OLATU TALKA

Maiatzeko azken asteburuan izango da, Antiguoko Frontoia eskaintzen da 11:00-tatik 20:00/21:00-rak arte.

Eszenatokia, ekipoa eta murala izango dugu. SABUR (gurekin kolaborazioan), zuzenean Karaoke bat egitea proposatzen du.

Barra jartzearen aukera pentsatzen da.

OLATU TALKA-n baliabideak ematen dituzte baina ez dirua (produkzio gastuak).

Aldarrikapen bat egin eta auzokideen babesak lortu.

Beste hiri batzuen adibideak hartu behar ditugu.

(Proposamenak KA TOPAKETA #5 dokumentuan aurkitzen dira)

## **8.2. ALDARRIKAPENEZKO PROPOSAMEN ZUZENAK UDALARENTZAT:**

Udalak Donostian bizi diren artistei, baliabideak eskaini beharko lieke:  
bultzada artistaren sorkuntza prozesuan eta ikusarazpenean.

# AKTA OSOAK – KA TOPAKETA #5 (2015.03.07)

## 1. EGOERA OROKORRA / PROPOSAMENAK / BERRIKUNTZAK

- ✚ **Irabazi Donostia** Alderdi Politikoaren proposamena jaso da Topaketetan parte-hartzeko. KA ez da politikoki definituko baina alderdi bakoitzak proposatutako proposamen kulturekin kontatzea positiboki ikusten du, batez ere, ordezkaritza instituzionala duten, izan duten edo izango dutenak. Gure interesa gaur egungo egoera (tristeia) aldatzea baita.
- ✚ Ostalaritzan, gauak beherakada handia jasan duela esan digute. Proposamenak egin ditzakegu, gauak animatzeko.
- ✚ Gipuzkoatik zehar erabiltzen ez diren espazioak daude (adibidez, Lezoko anfiteatroa), hauek erabili genitzake eta bertan gauzak egin.
- ✚ Lehenengo KA Zuzenean-en komunikazioa ona izan den arren (eta izaten ari da, gainera Lideren artikulua bat dago laster Argian aterako dena), Komunikazioko lan talde bat sortzea beharrezkoa ikusten da, medioekin kontaktuan izateko, elkarriketak eskaintzeko edo KA-ren eskema argi batzuetatik abituz komunikatuak egiteko, KA-ren izaera, egitura, kideak eta helburuak kontuan izanik. Lorena KA-ren egituran aurkezten da, jada lanean dago proiektuan.
- ✚ Egiteko gelditzen dira KA-ko kideen ekimenen zerrenda, inskripzio fitxa batzuk eta ordu aldaketaren proposamenaren gaiari heltzea, oraingo honetan asistentzia txikiagoa izan baita. Hurrengo Topaketa igande arratsalde batean izango da Apirilaren 12an zehazki, arratsaldeko bostetatik, zortziak arte.
- ✚ Teaserra prozesuan dago, proposamen zehatz baten zain. Hurrengo topaketan berri gehiago egongo dira.
- ✚ Bitartekaritza: Eusko Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin lehenengo kontaktuak hasi ditugu, bitartekariaren figura definitzeko. Ekimenen baimenak 48 ordu lehenago tramitatzeko larrialdi "leiho" bat existitzen da ere.

### 1.1. FINANTZAKETA / IKUSARAZPENERAKO KONTAKTU POSIBLEAK

Diputazioa: Parte-hartze proiektuetarako, laguntza ekonomikoak existitzen dira. Aukera ona dirudi. Kultua departamentura jo beharko litzateke eta Parte Hartze gunera jo.

Gipuzkoako Ostalaritza: Beraiekin kontatu behar da, indar eginez egungo lege batzuk aldatzeko... edo behintzat ekintza kultural alternatiboak edo oinarritzkoak egiteko.

Sponsor-eak: Eztabaidan argi dago laguntza guztia ongietorria izango dela beti ere, ez badu KA monopolizatuko ezta bere izaera, helburuak, etab. aldatuko.

DonostiKluba Zirkuitua: Dirudienez, 300 eurorainoko laguntza eskaintzen du artista bakoitzarentzat.

## **2. KA ZUZENEAN #1 BALORAZIOA**

Orokorrean positiboa izan zen nahiz eta hobetzeko hainbat puntu dauden. KA-ren "gidoia" (topaketa bakoitzean paperean eta Facebooken eskuragarri), KA-ren ekimen bakoitzean egon beharko litzateke. Gauza batzuk ahaztu ziren (donazioentzako kutxa komuna edo espazioen aldarrikapena) eta hobekuntza eszenikoak planteatu ziren (argia, eszenatokiaren irudi orokorra, etab.) eta baita ikusleen jarrera, izan ere, jendea hitz egiten jarraitu zuen ekintzak egiten ari ziren bitartean.

Azken orduan, logistika inprobisatu behar izan genuen (maketen argiztapena). Hurrengorako hobetu behar diren puntuak

Ekimena instituzioen web orrien bidez, egunkarien bidez, Facebook eta bestelako bidez zabaldu zen. Publikoaren aldetik erantzun ona izan zen eta hainbat medio ere bertan egon ziren.

### **2.1. ZUZENEAN #2**

Hurrengo egiteko, DoKa eskaini egiten da Apirilaren 18rako. Berriz ere, antolakuntza talde bat sortuko litzateke (pertsonek errepika ez daitezten) ekimena garatzeko, honela denok ikasi dezakegu nola garatu gauza hauek.

KA Zuzenean #2-n idazleak gonbidatu ditzakegu euren liburuak aurkeztu ditzaten. Kixkik KA-z hitz egingo du Leize Gorriako Jam batean.

### 3. LOGOAREN AUKERAKETA







Logoak aurkeztu dira eta puntuatu egin dira horietako bat aukeratzeko. Hirugarren logoa izan da puntu gehien jaso dituen. Gaur aterako da logo asare sozialetan.

Logoa, kideek egingo dituzten ekintzetan erabili daiteke eta ondo legoke Whatsapp, Facebook, eta abarretan erabiltzea, ikusten joan dadin.

### 4. WEB BALORAZIOA

Proposatzen da:

-  Kontzertuen kartelak barneratuko dituen “pestaña” bat gehitu.
-  Ekintzen zerrenda bat jarri
-  Kide bakoitzari buruz informazio gehiago jarri (linkak/bideoak/etab.)
-  Youtubera eramango duen esteka bat, Facebook eta Twitter bezala.

### 5. JENDEARENGANA IRISTEKO MODUAK

- ✚ Zuzenean elkarte eta agente lokalekin harremanetan jarri eta KA zer den azaldu, proiektuan integratu daitezten.
- ✚ Kontzertuak antolatzen diren tabernetan, informaziozko eskuorri batzuk utzi edo kontaktu bat.
- ✚ Disziplinak zabaltzea proposatzen da.
- ✚ Hodeiek ber web orrian parte-hartzera gonbidatzen gaitu. elkARTuz: <http://www.elkartuz.com/elgg-1.9.3/> Sortu duen sare sozial bat da, Gipuzkoako artistak gure artean ezagutu gaitzen eta espazio bat sortu eta elkarbanatu dezagun, proiektuak aurkezteko, zer egin nahi dugun... Iragarki "horma" bat du, bakoitzak bere ideiak idatzi ditzan (adibidez, baxujolea bilatzen da tald baterako, bideografoa bilatzen da bideoklip bat egiteko, haur transexualei buruzko performance bat egiteko artistak bilatzen dira). Web orriaren ideia ez da bakoitzak bere burua promozionatzea, baizik eta espazio bat izatea, ideia artistikoak beste batzuekin partekatzeko eta honela obrak sortzeko. Kontzertu osteko garagardoa edatean proiektuaz hitz egitea bezala da, edo galeria batean elkarrekin zerbait sortzeko elkarrikeria bezala, baina formatu birtualean.
- ✚ PECHA KUCHA NIGHT: Apirilaren 23an CC Okendon (Gros). Formatu arin bat da, 20 minutuko erakusketekin, 20 irudi, KA zer den aurkezteko aukera ona eta publiko gehiagorengana iristeko.

Egun berean proposamen ezberdinak dira eta ez daude gai kulturaletara soilik mugatuak, honela zuzenean beste publiko batengana heltzen gara.

## 6. LAN TALDEAK:

- ✚ PRENTSA: Lide Hernando, Iñaki Arizmendi, Ander Morea, Igor Alvarez, Lisandro.
- ✚ KA ZUZENEAN#2: Eneko Doka, Antxon, Ivan Oteiza, Karmen Salazar, Kixki.
- ✚ OLATU TALKA: Igor Alvarez, Antxón, Jokin, Gorka Calero, Lisandro, Roberto

## 7. KA-ren EGITURA

KA, HONELA OSATUTA DAGO: Pertsonak/artistak/agenteak. Kideek burutzen diren ekimen artistikoez ere osatuta dago.



Xpressionk, proiektuaren bultzatzaile bezala, administrazioaz, sare sozialez, instituzioekin harremanetan jartzeaz... arduratzen da.

EGITURA (HORIZONTALA):

- 1) Guztia Topaketetan erabakitzen da. Etorri ezin dutenek bere iritzia idatziz eman dezake (Hodeiek egin duen bezala).
- 2) Proiektu zehatzerako lan taldeak sortzen dira. KA Zuzenean #1-ean egin den bezala edo teaserrarekin egin den bezala. Hauek autonomia maila bat izango dute, baldintza orokorrak denon artean zehaztu ondoren.
- 3) Xpressionk: Proiektuaren bultzatzailea (Ez sortzailea, denon artean sortu dugu eta).  
Ondorengoez arduratzen da:
  - Administrazioa (inskripzio orriak, datu basea, fakturazioak, etab).
  - Topaketen kudeaketa
  - Web eta sare sozialak
  - Kontaktu instituzionala
  - Etab.

GARRANTZITSUA: Guztia Topaketetan erabakitzen da, Xpressionk-k (Jokin) beste edonoren botere berdina du erabaketan, hortaz, denon artean harturako erabakien arabera jokatu du (proiektu kolektiboa).

Badakigu batzuek ezin izaten dutela Topaketetara etorri lanagatik baina hitz egingo diren gaiak komentatuz edo berriak proposatuz dokumentu bat bidaliko balute euren iritziarekin, kontuan hartuko litzateke ere.

## 8. DONOSTIA 2016

2016-ko hitzaldietara joango den norbait behar dugu, jakiteko zehazki zertaz doan gauza eta zein ideia dituzten.

**Demagun** (Asociación por la Paz) Jaialdi Antimilitarista batean parte-hartzeko eskaintza egin du. Hau Donostia 2016-ren programaren barne dago. Kontaktu instituzionala Xabi izango litzateke, lehen Open Space-an parte hartu baitzuen. Formatua, jaialdi "garrantzitsu" batena da baina artista lokalekin kontaktu nahi da.

Baita ere, Donostia 2016-ren barnean Suhiltzaileen espazio bat eskaintzen da, udaran gehienez artista bakoitzeko 4 orduko ekimenak egiteko.

### 8.1. OLATU TALKA

Maiatzeko azken asteburuan izango da, Antiguoko Frontoia eskaintzen da 11:00-tatik 20:00/21:00-rak arte.

Eszenatokia, ekipoa eta murala izango dugu. SABUR (gurekin kolaborazioan), zuzenean Karaoke bat egitea proposatzen du, hau da, musika talde batek zuzenean jotzea eta animatzen den jendeak abestea.

Barra jartzearen aukera pentsatzen da sarrera batzuk lortzeko.

OLATU TALKA-n baliabideak ematen dituzte baina ez dirua (produkzio gastuak).

Muralean proiektorea jartzeko aukera egon daiteke baina argiaren arazoa daukagu.

Agian ez da jendearengana iristeko egun ona beste gauza batzuk ere egon daitezkeelako.

#### PROPOSAMENAK:

- ✚ Antzerki satirikoa: OLATU TALKAren aurka
- ✚ Positiboki baloratu kexatu daitezela, atentzioa deitu
- ✚ Ekimenaren lekua aldatu Ondarretara edo beste auzo batzuetara. Leku irekiak izan daitezela.
- ✚ Zerbait handia egin, ez soilik beraiek esaten digutena.
- ✚ Aldarrikapena presente egon dadila egun osoan zehar eta ahalik eta medio gehienetan zabaldu.
- ✚ Egun horretan bertan beste zerbait montatu.
- ✚ Amarako institutuko parkera joan.
- ✚ Ekimenean egiten den guztia grabatu.
- ✚ Antiguoko jendearekin hitz egin, asoziazioak, gaztetxeak, auzokoak, ostalariak...
- ✚ Hurrengo astean berdina errepikatu Olatu Talkatik kanpo modu aldarrikatzailean eta ikusarazten.
- ✚ Kendu diguten espazioa berreskuratu nahi dugu eta horretarako ekintzak antolatuko ditugu.
- ✚ Interesgarria zirudien zirkoaren gaiak eta ekintzak egin zirkua udaletxetik eraiki nahi dela erakutsiz, kultura erabiliz.

✚ Hemendik maiatzera, gauza gehiago egin.

Udaran: Donostian kaleko ikuskizunak egiteko baimenak eskatzeko aukera dago. Indibidualki ematen diren baimenak juntatu daitezke eta zerbait egin egunean zehar.

ALDARRIKATZEKO ORDUAN, NORI KEXATU BEHAR GARA?: Auzokideen pentsatzeko era aldatu behar dugu, ezinezkoa izango da udaletxeko arauak aldatzea. Nahiz eta legeak aldatu, kexatzen den bizilagun bat baldin badago, ez du ezertarako balio.

Herritarren babesa jaso behar dugu eta horretarako ezagutu behar gaituzte. Prentsan azaldu nahi dugu, hala ere, sare sozialak ditugu.

Kultura mugatua ez dagoen hirien adibideak hartu behar ditugu.

## 8.2. ALDARRIKAPENEZKO PROPOSAMEN ZUZENAK UDALARENTZAT:

✚ Artistaren sorkuntza prozesuari babesa eman. Udalak Donostian bizi diren artistei baliabideak eman beharko lieke. Laguntzeko bi aukera:

1. Espazioak eskaini (lokalak) artisten sorkuntzarako. Honek EZ DU DISKRIMINATZAILEA izan behar, historia artistikoagatik, esperientziagatik, adinagatik, jakintza ofizialengatik... Udalaren espazioak eskaini eskatzen duen edozein artistarentzat (adibidez tabakalera, gaur egun artista "ofizialentzat" da eta), eskaria eskaintza baino handiagoa balitz, zozketa egingo litzateke. Udalak lokalaren ordainketaren zati bat diru laguntzaz eman lezake asoziazio ofizialen prozesutik pasa izan behar gabe edo prozesua erraztuz.
2. Sorkuntza materialentzat laguntza ekonomikoa eskaini, artistarentzako justifikazio eta beherapenarekin, laguntza haei eskubide eta betebeharrak ezarri.

✚ Laguntza, artistaren ikusarazpenean:

1. Lizentziak eta erabilerak ikuskatu eta bizilagunen eta lokalen arteko harremana erraztu.
2. Ikuskizunak egiteko mugitzen diren artistei laguntza ekonomikoa, ikuskizunaren gastua justifikatu eta aurkeztu ondoren. Ikusarazpena babestu, tartean enpresa pribaturik egon gabe (Keler, Heineken, etab.)